

## 'Ilargiaren sekretua'. etzi

Hik Hasi-ren filma Leidorren ▶ 2



# Huarte eta Cuadrado izan dira Ikaztegiako krosetako irabazleak

**KULTUR ASTEA** ▶ 164 parte-hartzaile izan dira XIV. edizioan; gaur, ipuin kontaketa Kultur Astean ▶ 5



Maila desberdinetako lehen sailkatuak bere opariekin igandean Ikaztegiako kiroldegian. MADDI SOROA



## Jende ugari izan zen igandeko Azoka Egunean

**BERASTEGI** ▶ Hipolita Lasartek irabazi zuen gazta lehiaketa, Estibalitz Saralegik argazki rallya eta Lide Salbarredik ipuin lehiaketa ▶ 6

**ANOETA-IRURA** ▶

## Ekitaldi ugari bihar, eraso sexisten aurkako egunean

Ipuin kontaketak eta kafe tertulia ▶ 4



## 'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ HITZA laguntzen duten harpidedunen artean **MAHALA**ren esneki eta txerrikiak zozketatuko ditugu

**NATURAL -  
NATURALAK**



Mahala baserria  
20491 LEABURU  
Tel.-Faxa: 943 673 499  
Tel. Mug.: 689 805 633

## KULTURA ▶



## Sentimendu eta baloreak, agerian

Hik Hasi-k ekoiztutako 'Ilargiaren sekretua' filma eskainiko dute etzi Leidorren; ondo pasatzeko aukera eskaintzeaz gain, jarrera aktiboa, errespetua eta elkarbizitza bezalako baloreak lantzea du xede



## LEIRE MONTES

Ilargiak, gauero, eta jendea konturatu gabe, sortzen eta isurtzen ditu loreak lurrera. Naturari eta pertsoneri bizitzaren ematen dieten loreak dira. Batzuek lore guztiak eurentzat nahi dituzte, botere magiko handiak baitituzte. Horretarako, lurreko lore guztiak biltzeaz gain, ilargiari kortxo batez tapatuko diote ahoa. Horrela, ilargia haziz eta gizenduz joango da; eta, ilargi betearen denean, potoloen dagoenean, traman-kulu batekin zurrupatuko dute, barnean dituen lore guztiak eurentzako izan daitezten, eta

handik aurrera loreak eurentzat bakarrik egin ditzan. Gero, eta mundua kontura ez dadin, ilargiaren irudi bat proiektatuko dute zeruan. Haurrak lore baten bila dabilta, neska etorkinaren senidea sendatzeko. Gero, besteen asmo maltzurren berri jakitean, ilargia bera osatu nahiko dute, loreak sortzen jarrai dezan, eta natura lehenera itzul dadin».

Hauxe da *Ilargiaren sekretua* filmak kontatzen duen istorioa; jarrera aktiboa, errespetu eta elkarbizitza istorioa ere bada. Euskaraz eta pertsonaia errealekin Euskal Herrian ekoiztutako lehendabiziko lana

da, eta Hik Hasi euskal heziketarako aldizkariak izan du horren ardura.

Donostiako Kurasaalean estreinatuko zuten *Ilargiaren sekretua*, hilaren 14an. Eta etzi, ostirala, Tolosan bertan, Leidorren, filma ikusteko aukera izango dute txikienek; eta ez hain txikienek ere. 85 minutuko iraupena du lanak, eta bi saio egingo dituzte: 15:15ean lehen, eta 17:00etan bigarrena. Sarrerak salgai daude egunotan Bilintx liburudendan (Arostezia kalea).

«Hutsune bat betetzen» saiatu dira Hik Hasi-koak ekimen honekin: «Irudiaren munduan,

euskaraz filma gutxi egiten dela ohartu gara. Gaur egun, jakina da irudiak gero eta garrantzi handiagoa duela bizitzako arlo guztietan; eta, nola ez, baita hezkuntzan ere. Iru-diaren lanketa eta harekin hedatzen diren balioak, intentzioak, portaera motak eta abarrek, baina, presentzia gutxi dute eskolan».

Hik Hasi egitasmoaren helburua euskal hezkuntzan sortzen diren beharrei erantzuten ahalegintzea da. Besteak beste, aldizkariak, udako topaketak, lan monografikoak, baliabide pedagogikoko gidak eta euskal jolasak erabili izan ditu horretarako. Orain, filma aitzakitzat hartuta, irudia eta hari lotuta doazen baloreak eta mezuak lantzea da haien nahia.

Izan ere, ondo pasatzeko aukera eskaintzeaz gain, zenbait mezu hedatu nahi dituzte filmaren bidez: «Neska-mutilak iniziatibadunak izatea nahi dugu; filman agertzen direnak sortzen diren arazoak konpontzeko jarrera aktiboa azalduko duten behin eta berriro. Era berean, jendearen arteko errespetua, kulturen arteko kontrastea eta elkarbizitza eta natura errespetatzeko sentsibilitatea

ere jorratzen ditu lanak. Gainera, haurrak eta gaztetxoak kontsumismoaren eraginez jabetzea nahi dugu».

Hasieran zinema aretoetan eskainiko duten arren, filma bideo eta DVD formatuetan kaleratzeko asmoa ere badute. Lanari lotutako hainbat material ere prestatu dute.

## Eskualdekoen papera

Filma Euskal Herrian bertan egiteari garrantzia eman diote Hik Hasi-koek: «Bertako bitartekoekin, baliabideekin, aktoreekin eta gure ikuspegiarekin egin nahi genuen guztia».

Tolosaldeari ere paper garrantzitsua eman diote lan honetan. Bost astetan filmatu zuten *Ilargiaren sekretua*, joan den udan, eta aukeratutako lekuetako bat Amezketa izan zen; Zarautzen, Pasaian, Hondarribian, Donostian, Bilbon eta Landetan ere izan ziren filmatzen. Gainera, protagonisten artean badago eskualdeko lagunik: Tolosan bizi den Piritx pailazoa, eta Ibarren bizi diren Abartzeta eta haren alaba Tider. Talde teknikoan, bestalde, Gari izeneko mutil tolosarra ere aritu da.



**Zer behar dut Internetera konektatzeko?**

Posta elektronikoa, Web orria, etab. eduki nahi baduzu, merkean azalduko dituzun aukerak eta horietatik egokiena aukeratzeko irizpideak erakutsiko dituzugu: banda zabiera, ADSL, MODEM kabla, tarifa finkoa...

Tolosaldeko eta leitzaldeko **mintegiak**

Teléfono: 902 252 595  
TOLOSA  
Tolosaldea Lanbete Heziketa Institutua  
Ornaga 18:00-20:00

Interneteko eta zona eraberrak  
**902 252 595**  
www.mintegiak.com  
kursak@mintegiak.com

Partenariak:





IGERIKETA ▶

# Carlos Peñak marka jarri du Sella ibaia bizkarka igeri jaisten

Arriondasetik Ribadesellara hiru ordu eta 53 minutu pasatu zituen; hurrengo erronkak, Nikaragua eta Sei Orduak

**ERREDAKZIOA**

Carlos Peña igerilari tolosarrak beste marka lortu du aste-buru honetan, kasu honetan Asturiasen (Espainia). Sella ibaia jaitsi zuen Arriondasetik Ribadesellara —19 kilometro-hiru ordu eta 53 minututan eta orain arte Sella ibaiaren IV. Jaitsieran lortutako marka hautsi zuen. Orain arte lau ordu eta hamar minututan zegoen marka. Bizkarka egiten du igeri Peñak.

Ekimen honetan Jesus Ramirezen laguntza izan zuen. Berak gidatu zuen desioztutako ur hotzetan. Hagorputzaren temperatura mantendu ahal izan zuen gidaren laguntza lehorteguneak ebitatu eta ez zuelako gelditu behar izan. Jateko ere ez zen gelditu. Hasie-

ratik marka lortzea zuen buruan, irteera oso azkarra egin ondoren.

Sella Ibaiaren IV. Jaitsieraren ondoren, igerilari tolosarrak bere saria jaso zuen Veronica Blanco Ribadesellako Udaleko Kirol zinegotziaren eskuetatik. Protagonista eta bere laguntzailea oso pozik zeuden bere helburua beteta ikusita: Sella ibaia lau ordu baino gutxiagotan jaitea. Zaila izango da marka hau haustea.

**Nikaragua eta Sei Orduak**

Hurrengo erronkak Nikaragua lakua eta Euskadiko Sei Orduak izango ditu Peñak. Azken saio honetan, Donostiako Belodromoan igerileku bat jarriko dute eta Peñak iraupen igeriketako demostrazioa egingo du.



Carlos Peña igerilaria. HITZA

ARETO FUTBOLA ▶

## 2-4 galdu zuen Laskorainek Nogales taldearen aurka, denon ezustekorako

Altunak eta Gilek sartu zituzten, larunbatean, horitxoek golak

**ERREDAKZIOA**

«Duela pare bat hamarkada *Cronica de una muerte anunciada* maisu lana idatzi zuen idazle kolonbiarrak goitik behera aldatu beharko luke bere kontaketa paregabea eta hankaz gora ipini bere idazkera ezinhobea, joan den larunbatean Laskorainek pairatutako kirol heriotza behar bezala azaltzeko. Eleberrian gertatzen denaren aurka, Berazubín ez baitzen izan alde zurretik zorrigaitzaren arrastorik edo lorratzik, eta inortxok ere ez baitzuen izan gertatutako zihonaren berririk. Ezusteko galanta izan baitzen guztiontzat».

Horrelako konparaketarekin azaldu dute Laskorain taldekoek joan den jardunaldiko partida. 2-4 galdu zuten, Berazubín, Astigarragako Ceramicas No-

gales taldearen aurka, denboraldiko bigarren derbian. Ikastolakoen sasoi puntu ona ezagututa, batek baino gehiagok hiru puntuak Tolosan gelditu ko zirela egin zuen apustu. Baina ez zen hala izan.

Lehen zati ona egin zuten Laskoraingoek. Markagailuan ere bitan hartu ziren aurrea Astigarragakoek, Altunaren eta Gilen golei esker. «Baina ez genuen asmatu aurkaria atzealdean sartuta dagoenean hain garrantzitsua den abantaila horri eusten», diote horitxoek ordezkariek. Ceramicas Nogales-ek bitan berdindu zuen partida, errebotez eta hamar metrotatik; bina joan ziren bi taldeak atsedendaldira.

Bigarren zatian, gainera, «gero eta hobeto» aritu ziren Astigarragakoak. Zirrikitu txikiak ere estaliz izugarriko

lana egin zuten atzean, eta binaldo berdinketa hausten zuen gol erabakiorra sartzen ere asmatu zuten. «Azken segundorarte borrokatu baginen ere, ilusioa eta kemena lagun, ezusteko zorrigaitzak harekin batera ekartzten duen zorabioarekin borrokatu ziren, ideiak ilun eta larritasunez, eta ez genuen etekinik atera».

Egizabal entrenatzaileak eta Javi Delegatuak Domentxe, Telletxea, Yustos, Saldias, Barriola —hasierako bostekoa—, Belldarrain, Amatriain, Gil, Alonso, Altuna eta Urko kantxaratu zituzten Berazubín.

«Porrot honek ematen duen amorrutarekin», Piti Pascual taldeari egin beharko dio bisita Laskorainek igandean. «Beraz, bezperan txintxo ibili beharko dute horitxoek ikastolako ikasle ohiek antolatutako afarian».

HEZKUNTZA ▶

## Zaindarien Festa, aste osoan Hirukiden

*Maitasuna da zoriona eta pakea* lelopean, Zaindarien Festa egiten ari dira egunotan Hirukide ikastetxean. Orain arte elizkizunak eta hitzaldiak izan dituzte. Bihar, 08:00etatik 17:00etara, Gainberrin, Jesuitinatan eta Eskolapioetan, jolasak, kirolak, jaialdia, dominen banaketa, zinema eta buruhandiak antolatu dituzte, besteak beste. Etzi, mendi irteera egingo dute, eta ikasleen eta irakasleen arteko futbol partida jokatu dute Eskolapioetan. Larunbatean, Kirikiño aisialdi taldeak arratsalde berezia prestatu du, ekintza eta jokoekin.

HITZALDIA ▶

## Euskal estatua hizpide, bihar, udaletxean

*Euskal estatua, atzo, gaur eta bihar* hitzaldia antolatu du herrian Orreaga taldeak. Gaizka Aranguren izango da hizlari, 19:30etik aurrera, udaletxean. «Herri gisa aintzat hartua izateko egun dagoen bide bakarra estatu-nazio gisa esistitzea da. Estatu-nazioa hil ala biziko bidea da izate propiorener aberastasunari eutsi nahi dion herriarentzat». «Ekimen politikorako ikuspegi berriak sustatu» nahi ditu Orreaga taldeak.

DEIALDIA ▶

## Gaur, ezker abertzalearen batzarra

Tolosako ezker abertzaleak batzarrera deitu du gaurko. 20:00etan hasiko da, udalbatzar aretoan.

INAUTERIAK ▶

## Ttenttek aisialdi taldearekin dantzan

Ttenttek aisialdi taldeak Inauterietan dantzan ateratzeko izen-emate zerrendak zabalik ditu. Interesa duenak gaur, bihar edo etzi San Frantzisko elizako lokaletara agertu behar du, 18:00etatik 20:00etara.

FUTBOLA ▶

## Bost partida irabazi eta hiru galdu Tolosako beheko taldeek

Tolosa B-k zorte txarra izaten jarraitzen du; neskek bigarren itzuliko lehen partida galdu dute

**ERREDAKZIOA**

Tolosako beheko taldeek bost partida irabazi eta hiru galdu dituzte asteburu honetan. Lurraldeko 1. Mailako Tolosa B berriz ere esku hutsik joan zen etxera; 0-1 galdu zuen Martuteneren aurka. «Taldeak borrokatu egin zuen, baina zortea ez zegoen gure. Aukera gutxi izan arren, baloiak langan jo zuen behin, eta bestean Martuteneko atzelariak urrundu zuen azken unean», diote ordezkariek.

Nesken taldeak bigarren itzuliko lehen partida galdu zuen Zubietan, Vasconiaren aurka, 0-3. 20. minutuan sartu zuten donostiarrek lehen gola, eta tolosarrek ezin izan zioten partidari buelta eman. Oihane atezainari txartel gorria aterazio epaileak, eta Maider Goi-koekea jokalaririk jarri behar izan zuen postu horretan; «primera aritu zen». Ainhoa eta Maite lesionatu egin ziren partidaren, eta Oihane atezaina eta oraindik osatzeko bidean diren Aitziber eta Uxue bezala, ezin izango dute hurrengo jardunaldian jokatu.

Euskal Ligako jubenilek 4-1 irabazi zioten Durangori. Ibaik, Gillerrek (2) eta Axierrek sartu zituzten etxeko golak. Jubenilen 2. Mailakoek 2-1 irabazi zuten Usurbilen aurka, Mike-len eta Alonsoren goli esker. Euskal Ligako kadeteek 1-0 galdu zuten Realaren kontra, Zubietan, partida zailean. 2. Mailako kadeteek 0-3 irabazi zuten Luberriren aurka; Haritzek, Irigok eta Ikerrek sartu zituzten golak. *Fletxi*-ren mutilak denboraldi paregabea ari dira egiten. Infantiletan, azkenik, Ohorezko Mailako taldeak 1-0 irabazi zion Touring azken sailkatuari, partida txarrean. Josuk sartu zuen Tolosaren gola. Eta Infantil Txiki 5-0 irabazi zion Elgoibarriri; Josemik sartu zituen gol guztiak.

**KEY-LAN**  
*Sarraigintza*

Nafarroa etorb, 13 behea - TOLOSA  
Mug.: 670 41 79 22  
Tel./Faxa: 943 65 03 13

IRURA-ANOETA ▶ GIZARTEA

# Egitarau mamitsua, eraso sexisten aurkako eguna dela-eta

Irura eta Anoetako udalek ipuin kontaketak eta kafe tertulia antolatu dituzte biharko 'Eraso sexistarik ez' lelopean

IMANOL GARCIA

Anoetako eta Irurako udalek, bi herrietako ikastolekin elkarlanean, egitarau oparoa antolatu dute biharko, emakumearen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna dela eta. *Eraso sexistarik ez* lelopean, ipuin kontaketak eta kafe tertulia antolatu dituzte.

Ume eta gaztetxoentzako ipuin kontaketak ikastoletan burutuko dira. *Neskatilen alde, denon alde* izeneko ipuin kontaketa egingo da, lehenengo, Irurako Ikastolan, goizeko 9:30ean, ondorengo ikastolan, berriz, 11:30ean egingo da. Honen ondoren ipuin lehiaketaren deklamazioa eta sari banaketa egingo da.

Arratsaldean, gazte eta helduentzako ipuin kontaketa saioa egingo da. Emakumeen aberastasuna du izenburua eta 15:30ean izango da. Anoetako udaletxeko bideo gelan. Emanaldia euskaraz izango da.

## Bi udalen adierazpena

Bihar emakumearen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna dela-eta, Anoetako eta Irurako udalek ondorengo adierazpena plazaratu dute:

-Emakumeen aurkako indarkeriak haien giza eskubideak eta funtsezko askatasunak urratzen eta zapaltzen dizkie.

-Indarkeria honen sorburua emakumeen bazterketa estrukturalan datza.

-Emakumeen aurkako indarkeria ekidin egin daiteke jarduketa eta politika ezberdinen bidez.

-Emakumeen aurkako in-

darkeria erabiltzen dutenek jakin behar dute legeak horrelako ekintzak zigortzen dituela eta gizarte honek ez duela honelako jokabiderik onartzen.

-Biktimizek gizartearen elkartasuna eta hurbiltasuna sentitu behar dituzte.

-Konpromiso politiko, sozial eta instituzionala nabarmen indartu da gizartearen, nahiz eta oraindik bide luzea dugun egiteko.

-Udal administrazioak oinarritzko papera du, bai emakumeen aurkako indarkeria saihesten, bai biktimei laguntza eta babesa ematen. ◀

Ondoren, 17:30ean, Irurako Ikastolako aretoan, kafe tertulia egingo da *Erasoei nola aurre egin* gaiaren inguruan. Autodefentsa ikastaroan parte

hartzten dutenak arituko dira, bai euskaraz bai gazteleraz. Azkenik, tertuliaren ondoren, *Agresiones* izeneko bideoa ikusi ahaliko da.

VILLABONA ▶ MENDI ASTEA

## Diapositiba emanaldia Jon Belokiren eskutik

Mendizale zarauztarrak 'Jainkosen altzoan' izeneko proiektioa eskainiko du Gurean



Gailurretako zein inguruetako gizartearen irudiak ikusiko dira. HITZA

I. GARCIA

Eskarmentu handiko mendizalea da Jon Beloki zarauztarra. Egun eta ordu asko eman ditu mendian. Esperientzi hori guztia isladatzen duen diapositiba emanaldia eskainiko du gaur Gurea Aretoan, 20:00etan, Aizkardik antolatu duen Mendi Astearen baitan. *Jainkosen altzoan* du izenburuztat emanaldiak eta euskaraz izango da.

Jon Belokiren hitzetan, Cho Oyuren igoeran esperientzia aparta bizi izan zuen: «Gailurrera iritsi aurreko gauean,

ezin izan genuen ezertxo ere lo egin. Hotzak izoztuta, ia lorik egin gabe, gure buruetatik milaka burutazio pasatu ziren. Nolabait esateko, une hartara arte egindako igoeretan gertatutako guztiaren irakurketa eta okasio honetan, gure sentimenduen adierazpena».

Azken urteotan Himalaiara egindako hainbat espedizioan hartu du parte Belokik, batez ere Alberto Iñurrategirekin. Mendizale honekin lortu zuen, hain zuzen, Cho Oyuko tontorra. Igoera berezia izan zen, 2002ko abenduan egin baitzen, negu gorri erdian.

VILLABONA-ZIZURKIL ▶

## Jateko ohituren garrantziari buruzko hitzaldia

I. GARCIA

Jesusen Bihotza Ikastolak, Kutxako Gaztetzaren Elkartaren laguntzarekin, *Gizentasuna, anorexia eta bulimia: zure osasunarentzat arriskufaktoreak* izenburupean hitzaldia antolatu du, bihar arratsalderako, Gurea aretoko erakusgelan, 15:00etatik 17:00etara. LHko 5. eta 6. mailetako eta DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleentzako gurasoei zuzenduta dago hitzaldia. Ana Elbusto nutrizio-medikua izango da hizlaria eta elikadurak osasunean duen garrantziak eta jateko ohiturek sor ditzaketen arazoak prebentzioaz mintzatuko da.

VILLABONA ▶ GIZARTEA

## Emilio Salaberriaren epaiketa atzeratu egin da

Defentsako abokatuak eskatu du atzerapena, atxilotuekin egoteko denbora gehiago izateko

I. GARCIA

Emilio Salaberria billabonatarren epaiketa atzeratu egin da. Gaur hasi behar zuen hiru eguneko epaiketak, baina defentsako abokatuak hala eskatuta, epaileak atzeratu egin du eta urtarrilean edo otsailean izango da. Salaberriarekin batera atxilotu zituzten hiru lagun Madrilgo espetxeetara eraman behar zituzten epaiketa hasi baino hilabete lehenago. Horietatik bi orain aste bete eraman dituzte, eta beraz, atxilotuekin hitz egiteko denbora fata dela-eta eskatu du defentsako abokatuak atzerapena.

Gaur egun, 53 urte ditu Emilio Salaberriak eta Madrilgo Navalcarnero espetxean dago preso. 2002ko martxoaren 25an atxilotu zuen Guardia Zibilak, Guillermo Ruiz Polanco epaileak agindutako operazioan eta «terrorismo delitua» egotzi zioten. Operazio horretan beste bederatzita lagun atxilotu zituzten, tartean Ekaitz Aramendi eta Eider Ijurko ibar-tarrak.

Operazioaren ondoren egindako adierazpenetan, Salaberriaren garajearen «dokumentazio ugari, armak eta ehundik gora kilo lehergailu» aurkitu zituztela esan zuen Guardia Zibilak.

VILLABONA ▶ HEZKUNTZA

## 'Whale rider' filma ikusiko dute Ernioeako ikasleek

Gurean izango da, Irudi Biziak programaren baitan, genero berdintasuna lantzeko

I. GARCIA

*Irudi Biziak* programaren baitan, Ernioeako Institutuko DBH-ko ikasleak *Whale rider* filma ikusiko dute bihar goizean Gurea antzokian. Programa honetan luzemetrai ezberdina ikusten dira ikasturtean zehar eta gero material didaktikoez baliatuz, ikasgelan lantzen dituzte filman ikusitakoa. Nahiz Ernioeako Institutuak nahiz Jesusen Bihotza ikastolak hartzen dute parte egitasmo honetan.

*Whale rider* filman genero berdintasuna landuko dute ikasleek. Niki Carok zuzendu-

tako luzemetrai honetan Ze-landa Berriko maoritar herri txiki batetan kokatzen den istorioa kontatzen da. Herri honetan krisialdi handia biziko da buruzagiaren oinordekoa jaiotzean hil eta haren arreba bikia bizirik ateratzen. Aitonak ez du neskatia onartuko eta honek oinordekotza merezi duela erakutsi beharko du.

Filma honek gogoeta unibertsala egiteko aukera ematen du: tradizioak eraberritu eta bai maori zein beste hainbat kulturatan erabat bazterturik dagoen emakumezkoari dagokion duintasuna berreskuratzea

IKAZTEGIETA ▶ KULTUR ASTEA

EGITARAUA ▶

**GAUR**

**Ipuin kontaketa.** Nerea Herrarteren ipuin kontaketa izango da 17:30ean eskolan.

**BIHAR**

**Antzerkia.** *Nora hoa neska*

izenpeko antzerki lana izango da 20:00etan gimnasioan Txirene antzerki taldearen eskutik.

**OSTIRALEAN**

**Kontzertua.** Villabonako Eresargi abesbatzaren musika

emanaldia izango da 20:00etan gimnasioan.

**LARUNBATEAN**

**Hitzaldia.** Kike Amonarrizek eta Asisko Urmenetak *Euskara lardaskatzeko manerak* deituriko hitzaldi umoretsua

eskainiko dute 20:00etan liburutegian.

**IGANDEAN**

**Antzerkia.** Zenbat gara antzerki taldearen, *Hamaika koloretan dantzan* lana 17:00etan gimnasioan.



XIV. Kros Herrikoieko lehenengo hiru gizonetakoak. MADDI SOROA



XIV. Kros Herrikoieko lehenengo hiru emakumeak. MADDI SOROA

# Elena Huarte eta Jose Javier Cuadrado, XIV. Kroseko irabazle

Egun alai eta polita igaro zuten kirolariek igandean, hamaiketako eta kirol materialarekin saritu zituztelarik

MADDI SOROA

Igandean izan zen Herrigintza elkarteak antolatutako ikaztegieta XIV. Kros Herrikoia. Laguntzaileei dagokienez, Ikaztegieta Udala, Insalus, Euskadiko Kutxa eta Shanti Kirolak izan ziren krosa burutzen lagundu zutenak.

Urtero legez, 10 kilometro egin behar izan zituzten bertara inguraturiko 164 lagunek. Korrika egin ostean, dutxatu eta arropaz aldatzeko aukera izateaz gain, hamaiketako dastatzeko aukera izan zuten kiroldegian. Indarrak berreskuratzen ondoren, sari banaketara

ri ekin zitzaion. Iazko moduan, Jose Javier Cuadrado izan zen txapeliduna. Emakumeetan, berriz, Elena Huarte.

Gogoratu, haurrek ere parte hartu zutela XIV. Kros Herrikoian, baina, hau erabat sinbolikoa izan zen, ez baitzegoen dortsalik ezta irabazlerik ere. Denak izan ziren garaile eta denek jaso zuten kamixeta bana.

Jose Mari Garmendia, antolatzaileetako batek adierazi duenaren arabera, «oso gustura geratu gara, dena ongi irten da, baita elkarteak bazkaria ere. Korrikalariak ere gustura agertu direla esan digute gaurerako». Beraz, denak pozik.

**Kultur Astea aurrera doa**

Ikaztegieta Udalak Kultur Astea antolatu du aurtengoan ere UEMA eta Galtzaundiren laguntzaz. Gauzak horrela, Udazkeneko Kultur Asteak hainbat ekintza ezberdin gauzatuko ditu datozen egunetan, herrian bertan.

Igandean eginiko krosarekin eman zitzaion hasiera Kultur Asteko ekintzei. Astelehenean, berriz, *Ariketa: osasunerako arriskurik gabe* izenpeko hitzaldia eskaini zuen Miren Soladañak kiroldegian. Atzo, *Milioi bat kilometro lur arras* deituriko diapositiba emanaldiaz go-

**SAILKAPENA ▶**

**EMAKUMEZKOAK**

- 1. Elena Huarte 38.30
- 2. Izaskun Zubeldia 40.38
- 3. Nerea Amilibia 42.18

**GIZONEZKOAK**

- 1. Jose Javier Cuadrado 31.47
- 2. Miguel Angel Elcina 32.12
- 3. Juan Carlos Valdivieso 33.17

**HERRIKOAK**

**Emakumezkoa.**

- 1. Eneritz Maiz 54.50

**Gizonezkoa.**

- 1. Jose Mari Garmendia 36.04

**BETERANOAK**

**Gizonezkoa.**

- 1. Imanol Oiarbina 35.40

zatzeko aukera izan zuten Nairobitarra Kultur Taldearen eskutik liburutegian.

Ondorengo egunetan, antzerkia, musika eta beste hainbat ekintza izango dira Kultur Astearen barruan.

**TELEFONOAK ▶**

**LARRIALDIAK**

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
**Anoetalea.** Medikua: 65 23 39  
**Asteasu.** Medikua: 69 24 23  
**Berastegi-Elduain.** 68 33 61  
**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34  
**Ibarralde.** Osasun etx.: 672411  
**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29  
**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20  
**Leitza.** Osasun z.: 948 510800  
**Lizartza.** Medikua: 68 20 77  
**Tolosa.**

- ▶ Anbulatorioa, Iarrialdia: 461111
- ▶ San Esteban: 00 68 00
- ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
- ▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (Iarrialdia)
- ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
- ▶ DYA: 67 25 36
- ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
- ▶ Ertzaintza: 53 88 20

**Villabona-Aiztondo.**

Anbulatorioa: 00 69 70  
**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

**GARRIAOK**

- ▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
- ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
- ▶ Taxi: 67 04 20

**EUSKALTEGIAK**

- ▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
- ▶ Arramele-AEK: 67 12 14
- ▶ Ika (Leitza): 948 63 18 88

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur.** Morant R. Zabalzarreta 1, Tolosa. 943 67 38 49.  
 Plaza M. Elbarren 36 (Leitza). 112.

**TOLOSALDEKO HITZA**

**Publizitatea.** 661 67 88 18.  
 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info

**Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33.  
 tolosa@tolosaldeko hitza.info

**Villabona-Aiz.** 687 41 00 22.  
 villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info

**Anoetalea.** 687 41 00 22  
 anoetalea@tolosaldeko hitza.info

**Ibarralde.** 687 41 00 32.  
 ibarralde@tolosaldeko hitza.info

**Alegialdea.** 687 41 00 34.  
 alegialdea@tolosaldeko hitza.info

**Leitzalde.** 687 41 01 18.  
 leitzalde@tolosaldeko hitza.info

**iragarki laburrak ▶**

**GALDUTAKOAK**

**Urrezko pultsera.** Urrezko pultsera galdu zen ibarra eta lurramendi artean. Balore sentimental handia du. Deitu 943 67 15 11 edo 6799 316 122ra. Diru eskertza izango da.

**LANA**

**Sukaldaria.** Tabernarako sukaldaria behar da asteburuetan lan egiteko. 943 69 19 33.

## BERASTEGI ▶ KULTUR ASTEA



Itxaso Urkizu berastegiarrari, Munduko Pala Txapelketan izan ondoren omenaldia egin zioten. HITZA

# Jende ugari bildu zen frontoian igandeko Azoka Egunean

XII. Gazta Lehiaketan Hipolita Lasartek irabazi zuen; Kultur Astea amaituta bihar bilduko dira balorazioa egiteko



Bertako produktuak jarri zituzten postuetan ikusgai frontoian. HITZA

## IÑIGO TERRADILLOS

Igandeko Azoka Egunarekin amaitu zen Berastegin aurtengo Kultur Astea. Beste urteetan bezala, frontoia postuz beterik izan zen igandean eta dotoreen jartzen zuenari saria eman zitzaion. Koro Artolari hain zuzen ere.

Banatu ziren sari gehiago, ordea; XII. Gazta Lehiaketa egin zen eta Hipolita Lasartek eman zuen lehen saria, 120 euro eta garaikurra. Bestalde, pasa den asteburuan egin zen argazki rallya irabazlearen izenak ere jakin ziren. Partehartzaileen argazkiak Urepele elkartearen izan dira ikusgai asteburuan, eta igandean epaimahaiak Estibalitz Saralegiren aukeratu zituen lehenengo

sarirako. Argazkiek zuten kalitate ona dela eta bigarren eta hirugarren sariak ere banatu ziren. Era berean ipuin lehiaketan irabazle izan zirenei ere banatu zitzaizkien sariak.

Giro ona nagusitu zen igandean Berastegin, jende asko gerturatu baitzen herriko frontoian jarri zituzten postuak ikustera eta baita arratsaldeko produktu dastaketara ere.

Sari banaketan izan zen sarpesarik; Itxaso Urkizu berastegiarrari Munduko Pala Txapelketan izan da eta hori dela eta omenaldi txiki bat egin zitzaion. Itxasori herriak oroigarri bat eskaini zion eta pozik eta hunkiturik hartu zuen kirolariak.

Eguna ondo amaitzeko, afalandoan bertso musikatuak

## SAILKAPENA ▶

## XII. GAZTA LEHIAKETA

1. Hipolita Lasarte
2. Maria Jesus Labaien
3. Jose Mari Dominbxin
4. Iker Ugartemendia
5. Edurne Otermin

## ARGAZKI RALLYA

1. Estibalitz Saralegi
2. Idoia Labaien
3. Jose Luis Agirrezabala

## POSTU DOTOREENA

1. Koro Artola

## IPIUIN LEHIAKETA

1. Lide Salbarredi
2. Ibai Esnaola

izan ziren; Joseba Ramirez eta Arantxa Kruz-en ahotsean garai bateko eta egungo bertsoak entzun ahal izan ziren irudi desberdinez nahasturik.

Ekitaldiz beteriko aurtengo Kultur Astea Azoka Egunarekin itxi da, emaitza onak izan dituenaren ustearekin. Orain antolatzailerik aztertu behar dute, bihar udaltxearen bilduko baitira 21:00etan aurtengo Kultur Asteak eman dituenari buruz balorazioa egiteko.

## BELAUNTZA ▶

## KZgunean Outlook Express irakatsiko dute

Aurrera darraite KZgunean antolatzen diren ikastaroekin. Gaur tutorearen bisita izango da 9:00etatik 13:00etara eta erabiltzaileen zalantzak argitzeko aukera izango da. Bestalde, gaur Belauntzako KZgunean 9:00etatik 11:00etara Outlook Express programa erabiltzen ikasteko mintegia antolatu dute. Programa hau erabiltzen ikasi nahi dutenek edo honen inguruan zalantzarik dutenek aukera dute gaur.

## UGARTE ▶

## Larunbatean gaztain jatea elkartearen

Larunbaterako, hilak 27, afaria antolatu dute Ugarteko elkartearen. 20:30ean izango da afaria, eta kostilla eta gaztain jateaz dastatzeko aukera izango dute animatzen direnek. Aipatu gaur izango dela izena emateko azken eguna, beraz, afarira joan nahi dutenek, gaur bertan joan behar dute elkartera edota Goi-koetxea tabernara. Gogoratu baita ere, Ugartekoak bertakoak edo ez direnak ere joan daitezkeela afarira.

## BERASTEGI ▶

## Guraso Eskola abian da astelehenetik

Berastegiko Guraso Eskolak astelehen honetan ireki zituen ateak. 15 lagunek eman zuten izena saio hauetarako. 21:00etatik 22:30era izango dira Jose Francisco Amiama psikopedagoak emango dituen eskolak. Lehenengo saioan izan zirenak oso gustura atera ziren Guraso Elkartetik. Bestalde, nahi duenak oraindik ere jaso ditzake eskola hauek, eta horretarako, hurrengo saiora, datorren astelehenean agertu behar du.

## IBARRA ▶

## Euskal Herria kaleko obrekin hasiko dira gaur

Ibarrako Udaletik jakinarazi dutenez, gaur dute Euskal Herria kaleko bost zenbakitiko hamazazpi zenbakira bertan egingo dituzten obrekin hasteko asmoa. Hain zuzen ere, tarte horretan arkupea berritzeko proiektua duela gutxi onartu zen eta orain hasiko dira konponketa lanekin. Udalak ondorengo egunetan sortu ahaliko diren eragozpenengatik barkatzeko eta ahalik eta gutxien iraungo dutela obra hauek adierazi du.



## Martxaundi gaua Gaztelun

**GAZTELU** ▶ Gazteluko herritarrek Jone bakarlararen ahotsaz gozatu ahal izan zuten berriro ireki berri den Kontzejuan. Jonek eskainitako emanaldia jendearen gustukoa izan zen. Bere abestiez gain, beste bakarlararen doinuak abestu zituen anoetar gazte honek. Ostiral honetan ere Jonek kontzertua eskainiko du, Bonberenean antolatuko den Martxaundi Gauean beste abeslari batzuen artean. HITZA

## KULTURA ▶

# Eskualdeko herrietan kultur egitaraua osatzeko asmoz datoz

UEMA-ko partaide diren herrietan kulturgintzako taldeen arteko trukea bulkatzeko xedea ere badute bide batez



Esate baterako Itzalak taldeak kontzertua eskainiko du Areson, hurrengo hilaren 10ean, Pake Toki elkartearen. JAIONE ASTIBIA

## JAIONE ASTIBIA

Leitzaldeko Euskara Zerbitzuak, bere baitan hartzen dituen lau herrietara bideratuta, alegia Areso, Leitza, Goizueta eta Aranorako, egitaraua zabala prestatu du, hurrengo hilabeteetako kultur ekitaldiak osatzeko asmoz, helerazi duen esku-orrian ageri denaren arabera.

Ekimen honi utsiz, bederatzia saio burutuko dituzte lau herrietan zehar, bakoitza modu batekoa eta ikus-entzule desberdinentzat izan litezkeenak. Horrela, musika mota desberdinetako kontzertu emanaldiak jarri dituzte aukeran, bertsolariak, ipuin kontalari eta magoak, hitzaldiak, erakusketak ere tartean direla. Eta saio-

ak ere herrietako eskola, elkarre eta areto desberdinetan burutuko dituzte lekuz lekuko aukeren arabera.

Orotara, 5.120 euro baino gehiagoko aurrekontua duen egitaraua prestatu dute. Eskaintza zabal horretako hainbat ekitaldi Kultur Elejiraren barrenean sartzen direnak izaki, hauek ordaintzeko laguntza UEMA-k emanen dio zerbituari, bestalde. Edozein moduz, jendearentzat doan izanen dira ekitaldi hauek guztiak, jakitera eman dutenez.

## Herrietatik hara eta honera

Kultur Elejirarekin, UEMA-ko partaide diren herrien artean kultur trukea ahalbideratzen da urtero urtero: herri horietara

## KULTUR EGITARAUA ▶

## ARESO

**Abenduak 5.** Bertsolariak, 14:00etan.  
**Abenduak 10.** Itzalak taldea, 21:30ean, Pake Tokin.

## LEITZA

**Abenduak 15.** Txan magoa, 19:00etan, zineman.  
**Apirilak 18-22.** *Liburu bat egiten* erakusketa, udaletxean.

## GOIZUETA

**Azaroak 26.** Ipuin kontalaria, 15:30ean, eskolan.  
**Abenduak 29.** Bertso-magia, 19:00etan, ganbaran.  
**Abenduak 30.** Asketa abesbatza, 20:00etan, ganbaran.

## ARANO

**Abenduak 17.** *Euskaraz lardaskatzeko manierak*, 20:00etan, elkartearen.

ko kulturgintzako arlo guztietan diharduten talde zein banakok jirari ekiten diete, herri baretik bestera beren lana erakutsiz. Horrela, euskaraz egiten den eta egin nahi den mota guztietako langintzarako, baliabide eta tresna garrantzitsua da, euskal herrietan dauden talde, artista, hitzlari, artisa... hots kulturgintzan ari diren guztien katalogo hau.

## EUSKARA ▶



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN aurkezpen ekitaldia. HITZA

## Eskualdeko Euskara Zerbitzua laguntzaile

Hartutako konpromisoak betez, gure egunkari honen aldeko apostua egin du

## J. ASTIBIA

Eskualdeko Euskara Zerbitzuak orain berriro, eskuartearen dugun egunkari honen aurkezpen garaietan hartutako konpromisoak betez eta komunikabide honen aldeko apostu argia eginez, diruz lagundu du TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkaria.

Bere garaian, TOLOSALDEKO HITZAK bere hedapen eremua ez ezik, informazio eskualdea ere zabaltzeko erabakia hartu zuenean eta Leitzaldekoa ere bihurtu, ondorioz baliabide tekniko eta pertsonalen handitzea etorri zitzaion, osotasunean proiektu mardulari ekinenez. Noski, asmo honen bideragarritasuna, besteak beste bere baitan hartzen dituen herrien esku ere badago: herri-tarren harpidetzak direla kasu, eta bertako erakunde publikoen esku bestalde.

Ildo horretatik heldu da kasu honetan, Leitzaldeko Euskara Zerbitzuak egunkari hau laguntzeko eman duen urratsa, horretara 3.000 euro bideratuz. Leitza eta Aresoz

gain, Goizueta eta Arano ere biltzen dituen zerbitzu honek, gure hedabideak «euskarearen normalizazioan duen garrantziagatik» egin du ahalegina, «euskaraz egina eta egunero gure etxeetan jasotzen dugun komunikabide honen aldeko apostua», eginez, handik bertatik jakitera eman dutenez.

Esan behar da, Leitzan eta Areson hedatzen den moduan, beste bi herrietan ere horrelako aukerak jorratzeko eta aztertzeko interesa agertu zutela, Goizueta eta Aranotik. Han ez baita HITZARik banatzen, oraingoz.

## Harpidetza eginez

Bestalde, Leitza eta Aresorako TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN harpidetzaren aldeko kanpaina berriari ekiteko dira, Leitzako Euskara Batzordekoak diren hainbat talde. Bitartean, hedatuz joateko aukeraz baliatuz, nahi izanez gero, 943 30 43 46 telefono zenbakira deitu besterik ez da egin behar HITZA jasotzeko.

## iragarki laburrak ▶



**Aizarnazabal.** Txakolina landatzeko lekua duen 50.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila salgai. Nekazal ustiapenaren bitartez bi familiarentzako etxea egiteko aukera.

**Anoeta.** 125 m<sup>2</sup> eta garajea duen duplex ebebizitza ederra salgai.

**Belautza.** 1.060 m<sup>2</sup>-ko pabilioia salgai; erabat argitsua eta garabiarekin.

**Belautza.** 225 m<sup>2</sup>-ko pabilioia alokairuan; erabat argitsua.

**Donostia.** 104 m<sup>2</sup>-ko ebebizitza salgai Colón pasealekuan. Ikuspegi zoragarriak eta erabat berri-tua.

**Gaintza (Nafarroa).** Berrikuntza behar duen hiru solairuko baserria salgai.

**Ibarra.** 95 m<sup>2</sup>-ko ebebizitza, oso eguzkitsua, kanpoaldera begira. Ikuspegi ederra.

**Ibarra.** 75 m<sup>2</sup>-ko pabilioia eta 2.500 m<sup>2</sup>-ko lur saila salgai. Nekazal

ustiapenerako egokia.

**Ibarra.** 75 m<sup>2</sup>-ko ebebizitza salgai. Lehenengo pisua; kanpoaldera.

**Lizartza.** 14.000 m<sup>2</sup>-ko pabilioiak salgai, eraikuntza berrikoak.

**Lizartza.** Hiru solairuko baserria bordarekin, 100 m<sup>2</sup> solairu bakoitzean eta 30.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila. Berritzeko.

**Tolosa.** San Esteban auzoan, 76 m<sup>2</sup>-ko ebebizitza dago salgai.

Hiru fatxada ditu, altzariekin eta

oso eguzkitsua da.

**Tolosa.** 50 m<sup>2</sup>-ko berritutako atikoa salgai; altzari batzuk baditu.

**Tolosa.** Gudari kalean 110 m<sup>2</sup>-ko etxea, kanpoaldera, eguzkitsua, igogailuarekin. Berritzeko behararekin.

**Tolosa.** Gernikako Arbola kalean, 155 m<sup>2</sup>-ko ebebizitza salgai, kanpoaldera, berritzeko.

**Tolosa.** Agintari kalean, 75 m<sup>2</sup>-ko ebebizitza eraikiberria salgai.

